

LIBURUTEGIEN Euskal Sistema

Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak, 2005. urtea geroztik, "**Liburutegien Euskal Sistemaren Buletina**" publikatzen du urtero. Honen bidez, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegiek burututako ekintza garrantzitsuenak bildu eta hedatzen dira.

Aurtengoan, aldaketa txiki bat sartu da. Albisteak, liburutegietako profesionalak kontatu dituzte, euren udalerrri eta liburutegietan garatu dituzten egitasmoei buruzko ikuspuntua jasotzeko aukera emanez. Beraz, parte hartu duzuenoi eskerrak eman nahi dizkizuegu azaldu duzuen interesarengatik eta eskaini diozuen denborarengatik. Era berean, eredu hau zuen gustokoa izan dadila espero dugu, hurrengo urteetan beste liburutegi batzuk ere animatu daitezten.

Sartu berri garen urteari dagokionez, Liburutegi Zerbitzutik, **Liburuklik**, Euskal Liburutegi Digitala, garatzen jarraituko dugu. Ildo honetan, erakunde berrien partaidetza bilatzen jarraituko da, euskal herritarrei, bereziki, eta ondare digitalean interesaturik dagoen orori, orokorrean, eskaintzen zaizkien funts bibliografikoen zenbatekoa eta balioa gehitu asmoz.

Era berean, **Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareari** helduz, blogen plataforma korporatiboa sendotzen jarraituko dugu. Honela, proiektu honetan hainbat liburutegi inplikaturik egonik, bertoko profesionalen ekintzak garatzeko eta Interneten bidez hedatzeko beharrezkoak diren prestakuntza eta trebezia mantentzen saiatuko gara ere.

José Luis Iparragirre Mujika
Kultura Ondarearen Zuzendaria

Liburutegien Eguna Ignacio Aldecoa Kultura Etxean

Gauza jakina da liburuak bere eguna daukela. Egun hori, 1995etik hona, apirilaren 23an ospatzen da UNESCOk hala proposatuta, eta 1616an hil ziren Inca Garcilaso de la Vega, Miguel de Cervantes eta William Shakespeare idazleen heriotza datarekin bat dator. Ehun herrialdetan baino gehiagotan ospatzen da.

[UNESCO](#)k Liburuaren eta Egile Eskubideen Nazioarteko Eguna aldarrikatu eta soilik bi urtetara, Espainian **Liburutegiaren Eguna** ospatzen hasi ziren. Egun hori ez da hain ezaguna jendartean eta estatu mailan baino ez da ospatzen, baina hala ere, oso baliagarria izan da liburutegien gizarte marketinerako.

Egun hori urriaren 24an ospatzen da eta bere helburua da jendea liburutegiak duen garrantziaz ohartaraztea, liburutegia adin guztietako irakurleen eta kulturaren topagune eta prestakuntza hobetzeko eta pertsonen elkarbizitzarako tresna den aldetik.



Ekimena abian jartzeko proposamena Haur eta Gazteentzako Liburu Adiskideen Elkarte kideena izan zen. Elkarte hori 1953an Zurichen sortutako Gazteentzako Liburu Nazioarteko Erakundearen (IBBY) Espainiako adarraren barruan dago, hain zuzen, Haur eta Gazteentzako Liburu Espainiako Erakundearen (OEPLI) barruan. Ekimena Kultura Ministerioak babesten du –dagoeneko desagertutako– Liburu, Artxibo eta Liburutegien Zuzendaritza Nagusiaren bitartez.

15 urtez irakurketa publikoa, eskoletako eta ospitaletako liburutegien sustapena eta liburutegi publikoekiko konpromisoa bultzatzeko lana eta ahaleginak ilusioz egin ondoren, 2011n Liburutegiaren Eguna ospatu zen Euskadin. Ignacio Aldecoa Kultura Etxean kokatutako [Gasteizko Liburutegi Publikoa](#) izan zen anfitrioi.

Ekitaldiak, egun guztian zehar egin zirenak, urriaren 26an egin ziren Gernikako Estatutuaren jaia zela eta. Jardunaldiari hasiera emateko, Samaniego Eskolako ikasleek olerkien irakurketa egin zuten. Ana Arana eta Arantza Semprún irakasle eta liburuzainek Haur eta Gazteentzako Liburu Adiskideen Elkarteak 2005ean argitaratu zuen liburutik aukeratu zituzten olerkiak. Ekitaldi horren helburua izan zen eskoletako liburutegietako liburuzainek eta ikastetxeetan irakurketaren eta liburutegien sustapenaren alde lan egiten duten irakasleak omentzea.

Samaniego Eskolan egindako irakurketa

Han bertan eta liburuak aurkeztu zituzten horien egilekide diren Xabier Etxaniz Erle eta Jose Manuel López Gaseni [Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskola](#)ko irakasleek. Biek ere, haur eta gazte literaturaren arloko ikertzaile moduan ibilbide luzea izateaz gain, hainbat lan argitaratu dituzte egile, itzultzaile eta literaturako kritikari moduan.

Goizeko ekitaldiek [Txagorritxuko Ospitaleko](#) ikasgelan jarraitu zuten bertako arduraduna den Ana García de Motiloaren eskutik. Ricar Román eta Nati Salazar Fundación Mejora elkarteak boluntarioek eta Marisol Quintana Kultura Etxeko liburuzainek ipuinak irakurri zituzten eta Patxi Zubizarreta idazleak, pregoiaren egileak, ospitaleratutako umeei liburuak eskaini zizkien.

Txagorritxuko Ospitalean egindako irakurketa

Nabarmenezkoa da Haur eta Gazteentzako Liburu Adiskideen Elkarteak liburu betetako 12 maleta eman zituela. Maleta horiek honako hauen artean banatu ziren:

- Samaniego Eskola
- Samaniego Bigarren Hezkuntzako Institutua
- Txagorritxuko Ospitaleko ikasgela
- Arabako Foru Aldundiaren Geroa, Sendoa, Paula Montal, Hazibide, Sansoheta, Ekilore eta Lore Maitea haurren etxeak
- Bidebarria Atzerriko Adingabeen Zentroa
- Laguntzarako Elkarte Solidarioa

Arratsaldean, Floridako ibilbideko liburutegian, ekitaldi instituzionala egin zen. Elena Odriozolak egindako kartela aurkeztu zen eta Patxi Zubizarretak pregoia irakurri zuen.

Ekitaldian izan ziren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua, Iciar Lamarain, guztiei ongietorria eman eta bertaratzegatik eskerrak eman zizkiena; Kultura Ministerioko Liburutegi Koordinaziorako zuzendariorde nagusia, María Antonia Carrato, egungo testuinguruan liburutegiek betetzen duten lekuaren defentsa hunkigarria egin zuena; Haur eta Gazteentzako Liburu Adiskideen Elkarte presidentea, José María Gutiérrez de la Torre, liburutegirik gabeko mundua zer nolako hondamendia izango litzatekeen imajinatzen proposatu ziguna; eta Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, Blanca Urgell, 14 urte zituen liburutegi batera, hain zuzen, Gasteizko Liburutegi Publikora, lehenengoz sartu zenekoa gogoratu zuena eta handik aurrera bere eskolako lagunekin arratsaldero irakurgai berrien bila liburutegira joaten hasi zela adierazi zuena.

Liburutegiaren eguneko 2011ko ekitaldi ofiziala, Vitoria-Gasteiz

Eguna bukatzeko, omenaldi xume bat egin zitzaion [Joxe Arratibel](#) (Ataun 1923 - Estibaliz 2011) bildumaren egile eta idazleari eta bertan parte hartu zuten Peio Añorgak eta Bernardo Atxagak. Bi idazleek aita Arratibelen irudia goraiatu zuten eta beneditar honek bere garaian bildutako zenbait ipuin tradizional – antzinako ipuinak, Zubizarretaren esanetan – kontatu zituzten. Atxagak argaltzen diren ardi ipuina kontatu zuen gaztelaniaz eta Añorgak, aldiz, kontatu zuen euskaraz, trebetasun handiz gaztelaniazko zertzeladak tartekatuta, eta horri esker, bertaratutako guztiek kontaketa jarraitu ahal izan zuten.

*Enrique Uriarte Gonzalo-Bilbao
(Ignacio Aldecoa Kultura Etxea)*

Liburutegiak 2.0? Eta hori zer da, zehatz-mehatz?

Bai, aitortzen dugu. 2009ko erdialdean, egitasmo horri buruzko lehenengo berriak jaso genituenean, hauxe zen pentsatu genuena liburutegi batzuetan: Blogger pixka bat ezagutzen genuen (Bateginik proiektua zela eta), Facebook eta Twitter entzunda geneuzkan... eta gutxi gehiago.

Beraz, bigarrena berehala sortu zitzaigun: “Nola? Sare sozialetan profila sortu, Wordpress-en blog bat, Wiki bat...? Uffff, ideiarik ere ez!

Bada, hori garai hartan izan zen. Hurrengo urtean prestakuntza-planari heldu genion. Sare sozialak eta blogak erabiltzen ikasi behar genuen, baita kalitatezko multimedia-dukia ere, eta horren guztiaren abantailak gure liburutegietan ikusten. Alajaina!

Hasieratik KZ Guneen laguntza eduki genuen, gure onerako kasu gehienetan, nahiz eta batzuetan korapilatsua ere izan (adibidez, “eurena”, tresna informatikoak 2.0, ondo ezagutzen zuten irakasleek, baina ez “gurea”, liburutegiak) Azken finean, prestakuntza-bidea errezeta gazi-geza baten ohiko osagarriekin egin zen: su eta gar pixka bat (“hau da hau ikasi duguna!”), “hau liburutegian egin behar dugu”, neke eta eszeptizismo tanta batzuekin apaindurik (“eta hau, zertarako?”, “berriro ikastaroa daukagu?”, “eta nora joan behar dugu oraingoan”). Eta hegazi harrapari baten moduan gaintik planeatzen, betiko arazoa: “Udalekoek utziko al digute hau egiten?”

Gaur egun, 2011ko amaieran, liburuzaing askok formakuntza bete dugu (nolabait esatearren), blog bat daukagu (guztiak txukunak, guztiak hobetzeko modukoak, Facebook-en eta Twitter-en orria daukagu, asko ikasi dugu eta gehiago ikasteko grina daukagu).

Batzuk haratago heldu dira, beste batzuk oraindik animatzen ari dira. Ez du axola; kordadaren aurrean doanak tira egin dezala, mesedez... eta inork ez dezala arnesa askatu.

Gu ondorio batera heldu gara: gai hau, gure lanean beste hainbat bezala, norberaren motibaziopean dago: sinetsi, disfrutatu, denbora eta gogoia eskaini. Hortik aurrera, erronka zera da: liburuzaing guztiak poliki-poliki animatzea, inor atzean ez geratzea... eta erabiltzaileek ere parte hartzea, noski. Hor dago gakoa, eta horretan gabiltza.

Horren berri emango dizuegu...

*Anabel Regalado
María Antxia
Getxoko Liburutegiaren arduradunak*

Helduentzako liburuak Gaztelaniaz

La caída de los gigantes / Ken Follett
Dime quién soy / Julia Navarro
Riña de gatos: Madrid 1936 / Eduardo Mendoza

Euskaraz

Bilbao-New York-Bilbao / Kirmen Uribe
3 Mariak / Arantza Urrtabizkaia
Autokarabana / Fermin Etxegoien

Haurrentzako liburuak Gaztelaniaz

Cuarto viaje al Reino de la Fantasía / Jerónimo Stilton
El barco fantasma / Tea Stilton
¡Esto es el colmo! / Jeff Kinney

Euskaraz

Kroko eta lagunak / Jo Lodge
Txomin ilea moztzen / Liesbet Slegers
Txomin ospitalean / Liesbet Slegers

Helduentzako bideoak Gaztelaniaz

Yo, también
El secreto de sus ojos
Camino

Euskaraz

Kutsidazu bidea, Ixabel
Izarren argia = Estrellas
Ezkutuko plana

Haurrentzako bideoak Gaztelaniaz

Hello Kitty y sus amigos
Erase una vez el cuerpo humano
Toopy y Binoo

Euskaraz

Triki, traka, tron
Hartz Txiki : 9 abentura
Piratak

Helduentzako diskoak Gaztelaniaz

Sale el sol / Shakira
Drama y luz / Maná
Pequeño / Dani Martín

Euskaraz

Ortizemugak begietan / Ken Zazpi
Euskal Herriko lur maitea
Era /Zea Mays

Haurrentzako diskoak Gaztelaniaz

Cuentos mágicos / Disney
Para bailar: canciones infantiles / Nuevo Mester de Juglaría
Juerga / Los Titiriteros de Binéfar

Euskaraz

Ongi etorri Pupu eta Lore / Pirritx, Porrotx eta Mari Motots
Irrien lagunak / Pirritx, Porrotx eta Mari Motots
Piratak / Pirritx, Porrotx eta Mari Motots

Irakurtzeko Jardunbide Egokien Topaketa Madrilen



Abusu Sarean-en “**ABUSU, AUZO IRAKURLEA**” egitasmoa, Madrilen, irailaren 20 eta 21ean, izan zen irakurtzeko jardunbide egokien “Maneras de leer” bilkuran aurkeztu zen. Topaketa hau, Leer.es zentru birtualak antolatu zuen, eta Kultura eta Hezkuntza Ministeritzak, FEMP-rekin (Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioa) eta autonomia erkidegoekin elkarlaneko sustapena izan zuen, Liburutegien arteko Lankidetzarako Kontseiluaren bitartez.



Xedea, ikastetxe, liburutegi, elkarte, etab.-etan irakurmena sustatzeko egiten diren ekimenei nolabaiteko ikusgarritasuna ematea zen, eta bertan 35 esperientzia ezberdin aurkeztu ziren.

Abusuko Udal Bibliotekak eta Litteraemundi kulturarteko liburudendak, 2011. urtean, “Abusu, auzo irakurlea” egitasmoaren barruan, burututako lau kanpainarik berritzaileenak aurkeztu zituzten. Proiektu honetan, Abusu Sarean osatzen duten hainbat ikastetxek, erakundeek, auzo elkarteek, kultur elkarteek eta kirol elkarteek parte hartzen dute. Bilbo eta Arrigorriagako Abusu auzoko sare honek, bost urte dihardu gogor lanean, ez bakarrik irakurzaletasuna sustatzen, baizik eta haur eta gazteen hezkuntzarekiko auzokide guztien konpromisoa lortuz ere.

Aipatu bilkuran, aurkeztutako lehenbiziko kanpainak izenburua du, eta bertan, auzoko jende ezaguna irakurtzen eta irakurketara gonbidatzen azaltzen da, honekiko harreman afektiboak sortzeko asmoz.

Proiektu honen beste ekimena kanpaina da, auzoko 30 merkataria eta 7 ostalariren inplikazioarekin burutu izan dena. Denda kolaboratzaile guztietan lau liburu utzi ziren, eta bertako arduradunek haurrak animatu zituzten liburuak etxean irakurtzera eta saltoki bertara bueltatzera. Kanpaina honekin, liburuak auzoko txoko guztietara eramatea bilatzen da.

Era berean, irakurketa klub birtuala ezagutzera eman zen, zeinetan Abusuko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleek parte hartzen duten. Liburutegiak hileroko hiru liburu aurkeztu ditu bere orrian <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/abusu/>, eta ikasleek eskolan irakurri eta iruzkina egiten dute. Ekintza hau, 2011. urtean martxan jarri den *Eskola 2.0* programarekin elkarlanean burutzen da.

Azkenik, liburuaren eguna dela eta, Abusuko bosgarren Aste Kulturalean antolatu eta 500 pertsona bildu zituen kale-ageraldia aditzera eman zen. Ibaizabal Institutuko eta Abusu Ikastolako ikasleek Lady Gagaren abesti ezagun baten ko-reografia eta euskarazko letra moldatu zuten Youtuben ikus daitekeen grabaketa burutzeko: <http://www.youtube.com/watch?v=K2mR4YuH4ws>. Honen helburua, irakurketa ikusgai jartzea eta ezagutaraztea zen, dibertigarria zen ekintza kolektibo baten parte hartuz.

Gotzone Butron
Arrigorriagako Liburutegia

Eibarko Juan San Martin Liburutegiko Bertako Funtsaren Eta Ondare Funtsaren Digitalizazioa

Egun, liburutegia, zein norberaren esparru eta eremu globalaren nahiz berezkoaren eta unibertsalaren integrazio eredu izan behar du. Bere bilduma fisiko edota digitalaren bitartez, eta Interneten bitartez ere, liburutegiak bere esparruko herritarrari ireki behar dio mundua. Era berean, bertako bilduman interesaturik dauden baina liburutegira hurbiltzeko zaitasunak dituzten herritarrengana hurbiltzea jakin behar du ere.

Aurerrapen teknologikoei esker, liburutegi publikoak liburutegi hibridoak bihurtu daitezke, hau da, informazio iturri digital, elektronikoa edo inprimatuak konbinatzen dituztenak eta modu prezentzialean zein urrunetik zerbitzuak eskaintzen dituztenak.

Eibarko Juan San Martin liburutegiak, bertako memoria historikoa biltzen duten hainbat liburu ditu. Paper formatuan dauden lanak dira, baina bere babesa eta kontsulta hobetzeko asmoz formatu digitalera bihurtu dituzte. Kasu batzutan, agortutako argitalpenak edota zahar liburu zaharren dendetan lortutakoak dira, irtebinderik bilatu ez ezean betirako galtzeko arriskuan zeudenak. Etorkizuneko belaunaldientzako betiko kontserbazioa bermatzeaz gain, liburutegira hurbiltzeko zaitasunak dituen ororentzako, kontsulta erraztu dugu modu digitalean.

Bestalde, liburutegi honek, interesgarritzat duen ondare funtsa ere badu, ondorioz, lehen digitalizazio egitasmo honetan, hauen artean batzuk hautatu ditugu, -en, Euskal Liburutegi Digitalaren, biltegi birtualean sartzeko asmoz.



Beraz, digitalizazio egitasmo hau burutzeko arrazoiak honakoak dira:

- Eibarko liburutegiko fondorik garrantzitsuena tokiko fondoa delako, eta hala teknologia berriak erabiliz fondoa zabaldu ahal izateko.
- Fondo horiek herritar askok kontsultatzen dituelako, eta, ondorioz, lan horiek hondatzeko arriskuak murrizteaz gain hobeto kontserbatuko direlako.
- Digitalizazioak obra horien gaineko ikerketak egitea erraztu egiten duelako, eta beti izaten direlako tokiko bilduman interesa izaten duten ikertzaileak.
- Digitalizazioa babes mekanismoa delako, batik bat, erreserbako fondoko monografiak dagokienean.

Eibarko Juan San Martin liburutegiak duen bildumaren barruan, interesgarri deritzogu lehen fase baterako, 85 monografiak digitalizazioa burutzea, 20.146 orri orotara. Lana, José Valderreyk burutu du, liburutegian bertan.

Hauexek dira digitalizatutako lanak, argitaratze-daten hurrenkeran:

XVI.mendea: Toribio Echevarriarena momenturen baten izandako Biblia (*Biblia ad vetustissima exemplaria nunc recens castigata, Romae que revisa...*) eta meza-liburu bat (*Misale romanum, Ex decreto Sacrosancti Concilij Tridentini restitutum, Pii V. Pont. Max. iussu editum...*), biak Lyonon inprimatuak Gulielmum Rouillium-en eskutik.

XVII.mendea: *Nueva recopilación de los Fueros, privilegios, buenos vsos y costumbres leyes y ordenes de la muy n. y muy l. prouincia de Guipuzcoa*, Bernardo de Vgartek inprimatutakoa, 1696an, Tolosan.

XVIII.mendea: Filosofiako bi obra (*Institutiones dialecticae... eta Cursus philosophici...*) Luis de Losadarenak, Salamancan inprimatutakoak 1721ean eta 1735ean; beste bat, Parisen inprimatutakoa 1763an, *Abregé de la morale de l'ancien testament*, eta, azkenik, *De imitatione Christi* obra, Thomas à Kempisena.

XIX. mendea: Vicente de Aguirrek idatzitako *Tentativas de reconstrucción de nuestro lenguaje natural y el problema de la palabra*, Eibarren inprimatutakoa, 1898an, Pedro Orúe inprimategian.

Digitalizatutako obra gehienak XX. eta XXI. mendekoak dira, eta Eibarko gaiak edo euskal gaiak jorratzen dituztelako izan dira aukeratuak.

Horien artean Toribio Echevarriarenak ditugu (*Viaje por el país de los recuerdos*, *Lexicón*, *El hijo del hombre*, *La Liga de Naciones y el problema vasco*, *La experiencia socialista en España*, *vista desde mi pueblo* y *Tres ensayos: del trabajo, la sabiduría y la oración*).

Armagintzari buruzko hainbat lan ere azpimarratzen ditugu, hala nola, *Breve historial del pleito armero* eta beste batzuk, Armeria Eskolak digitalizatutakoak: *Carta fundacional de la Escuela Especial de Mecánica de Precisión y de Armería de la villa de Eibar*, *Guía oficial de la Exposición Regional Vasca de Arte y de Industrias Guipuzcoanas*, eta bere fundazioaren 50. eta 75. urteurrenak zirela-eta argitaratu zirenak. Juan Ignacio Paul Arzaken *Evolución de la industria armera eibarresa* lana ere azpimarratzen dugu.

Bestalde, Eibarko euskarari buruzko hainbat lan, arteari buruzko *Arte popular vasco* eta Eibarko damaskinatuari buruzko lanak jarri dira LIBURUKLIEn. Eibarko historia ere funtsezkoa iruditu zaigu eta Gregorio Mujikaren *Monografía histórica de la villa de Eibar* eta Pedro Celayaren *Eibar: síntesis de monografía histórica* lanak digitalizatu dira.

XXI. mendeko lanen artean honako hauek azpimarratzen ditugu: José Roncok egindako Eibar industrialia jasotzen duen *Eibar: ciudad taller* argazki liburua, José Antonio Azpilicuetaren Supermendikute tirak eta Baroja Collet nahiz bestelako artisten beste hainbat lan.



Hori guztia kontsultatzeko LIBURUKLIK Euskal Liburutegi Digitaleko katalogotik abiatu ahal da (www.liburuklik.euska-di.net), orain dela gutxi Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak aurkeztutako proiektua.

Prozesuan, hautatu ditugun lanen jabetza intelektualarekin zerikusia duten gaiak direla eta, oztopoak izan ditugu. Funtsezkoa da teknologiak berekin ez ekartzea egileentzako eta egile eskubideen titularrentzako babesik eza. Hori dela eta, aukeratu diren lanak jabari publikoak dutenak edo bere konserbaziorako eta ondorengo hedapenerako digitalizatutakoak dira, beti ere, egileen eta eskubideen titularren beharrezko baimenak lortu ondoren. Baten bat bidean geratu da beharrezko baimen guztiak ez lortzeagatik.

Eskerrak ematen dizkiegu proiektu hau aurrera eramateko lagundu diguten guztiei, euren laguntza eta baimenik gabe ezinezkoa izango zitekeelako proiektu hau burutzea.

Eva Alberdi Zubiaurre
Eibarko Juan San Martín Liburutegiko arduraduna

Afrika Durangon



Immigratzaileek liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuetaz baliatu, ekin-tza kulturetan beren parte hartzea eragin eta kultura aniztasunarekiko errespetuzko jarrerak bultzatzeko asmoz, 2007. urtea geroztik, Durangoko Udal Bibliotekak, Immigrazio Sailarekin koordinatuz, liburutegia udalerrian elkarrekin bizi diren kultura ezberdinen topagune eta gizarteratze gunegisa sustatzeko asmoz, hainbat jarduera garatu ditu.

Aurten, Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuarekin elkarlanean, gure jarduerara “Munduko paisaiak-Paisajes del Mundo” kanpainaren barruan kokatu dugu, eta Afrika Beltzeko gure auzotarrengan jarri dugu arreta.

“Afrika Durangon” izendatu dugun ekimenarekin, gure ingurunean bizi diren immigratzaileen errealitate kulturala eta soziala hurbildu nahi izan diegu Durangoko gizar-teari. Honekin batera, udal liburutegiaren zerbitzuak atzeritarren kolektibo osatzen dutenengana zabaldu nahi izan ditugu ere.

Aste bat baino gehiago iraun zuen eta kultura esparru ezberdinak hartzen zituen



programazioarekin, Afrika gure liburutegira “hurbiltzea” lortu genuen. Honetarako, ACNUR, FUNDESO, Haurralde Fundazioa eta Durangoko M’Lomp Kultura Elkarte, Argoni Vasco Elkarte, La paz y el Amor Durangaldean Ghanako Elkarte eta JAPPOO elkarte afrikarren laguntza izan genuen.

Jatorri eta adin ezberdinetako hirurehun pertsona baino gehiagok parte hartu zuten Darfur-eko emakumei buruzko erakusketa. Honekin batera, hitzaldietan, zineforumean, ipuin kontalarietan eta jolas tailerretan parte hartzeko aukera izan zuten ere, ikuspuntu ezberdinak partekatuz eta liburutegia topaleku bihurtuz, beste behin ere.

Udal Biblioteka-Biblioteca Municipal

Immigrazio Saila-Área de Inmigración

Durangoko Udala-Ayuntamiento de Durango

Iurretako Herri Bibliotekak sari berria jaso du

Zazpigarren aldiz haur eta gazteentzako 200 liburuko lotearekin saritu dute Iurretako Herri Biblioteka, liburutegi publikoetako *Irakurzaletasuna Sustatzeko "Maria Moliner" XIV. Kanpainaren Deialdian*, Irakurzaletasuna Sustatzeko Kultur Ministeritzak daukan planaren barruan. Bibliotekak aurkezturiko proiektu horretan, 2011. urtean liburutegiak irakurzaletasuna pizteko antolatutako jarduera guztiak biltzen dira. Aurten gainera, aipamen berezia lortu du egitasmo honek erakutsitako kalitateagatik.

FEMP (Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioa) irakurzaletasuna sustatzeko kanpaina honetan Kultura Ministerioko Liburu, Agiritegi eta Liburutegien Zuzendaritzarekin eta Coca-Cola España Fundazioarekin lankidetzan aritu da, 50.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan haur eta gazteen irakurzaletasuna bultzatzea helburu duten proiektuei pizgarriak emateko. Proiekturik onenak liburu sortekin saritzea da xedea, liburu horiek udal liburutegietako bildumetan sartzeko. Proiektuak baloratzeke irizpide nagusiak hurrengo hauek izan dira:

- Helburuen argitasuna.
- Proiektuaren bideragarritasuna.
- Jardueren originaltasuna eta berrikuntza.
- Baliabideen eraginkortasuna.

Era berean, euren kalitateagatik eta jardunbide egokiengatik aipamen berezia jaso dute.

Honela, aurkeztutako proiektuan jarduera hauek nabarmendu behar dira, besteak beste: ikastetxeen bisita gidatuak eta liburutegiaren erabilera erraztea, ipuin kontalarrien saioak, Haur eta Gazte liburuaren eguna, Ipuin eta Bertso lehiaketa, "*Iurreta ezagutuz*" proiektua, "*Bularretik mintzora*", Making tailerrak (www.makingsarea.blogspot.com), munduko emakumeen literatur tailerra, emakumearen eguna, "*Liburutegiak Topaleku*" kanpaina edota "*Zorionak*" kanpaina.

Sareko irakurketa klubuen hasiera

Pasa den urtean hasi zen martxan Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzutik koordinatzen den egitasmoa. Alegria-Dulantzi, Amorebieta-Etxano, Ermua, Errenteria, Galdakao, Getxo, Hernani, Irun, Iurreta, Leioa, Lezo, Markina-Xemein, Tolosa eta Zarauzko liburutegiek, Vitoria-Gasteizko Ignacio Aldecoa liburutegiarekin batera, ekimen honekin funtzionatzen hasi diren hasierako liburutegi taldea osatzen dute.

Proiektua abiarazteko, otsailean martxan hasiko den berariazko mailegu politika eta liburutegi birtuala eratu dira.

Bestalde, parte hartzen duten liburutegiek utzitako edota erositako sortekin, eta Liburutegi Zerbitzutik ordaindutakoekin, sorten funts bat osatu da. Ildo honetik, aurreneko urte honetarako, Ignacio Aldecoa liburutegiak bere gordetegiaren parte bat utzi du eraturako sortek gordetzeko asmoz. Hauek, Liburutegien arteko zerbitzuaren bidez, liburutegiz-liburutegi lekualdatuko dira.

Era berean, egitasmo honetan parte hartu nahi duen liburutegi orok ekimen izango du horretarako aukera, izan ere, hilabete honetan proiektu honi atxikitzeke aukera eskainiko baita, berriro ere.

Euskadiko liburutegien blogen plataforma

Euskadiko liburutegien plataforma korporatiboa martxan da jada (<http://liburutegiak.blog.euskadi.net/>).

Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzutik koordinatutako plataforma birtuala da. Euskadiko Irakurketa Publikoko sareko liburutegietako profesionalekin lankidetzan sortutako egitasmo honek, informazio eta komunikazio teknologien erabilerean bidez liburutegi zerbitzuak bultzatzea bilatzen du.

Honen helburua, informazio eta ekintza interesgarriak sortu, eskaini eta hedatzea da, eta Interneti esker, liburutegiak herritarrekin modu bizi eta erraz batez elkartzea. Orain arte, Euskadiko 50 liburutegi baino gehiago gehitu dira ekimen honetara.

Azken finean, Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak, 2010eko otsailean, hasitako prestakuntza digital aurreratuaren emaitza praktikoa eta agerikoa da. Prestakuntza honen aurreneko ikastaroa "Manejo de las TICs para personal de bibliotecas" izan zen. Ondoren, "Manejo de las TICs para personal de Bibliotecas", "Perfeccionamiento en TICs para personal de bibliotecas" eta "Dinamización de Comunidades online" eman ziren, azken hau 2011. urteko azaroan bukatua. Prestakuntza gehienbat praktikoa izan da eta Euskadiko liburutegietako profesional ugari parte hartu du. Helburua, Euskadiko liburutegien parte-hartzea lortzea izan da hain zuzen ere, sare sozialetan, bereziki, eta Interneten, era orokorragoan, ezagutzera eman asmoz.